

Isaac López Mendizabal

ABOGADO

POLOSA'n 1908. Agosaren 28'an

George Lacombe Jauri
Bayonan

Jauri

Artu det zure idatzia eta gaur bertan bialtzen
dient nere liburukoetako bat.

Nik eskatzen dient bada, nere eskeintza
ontzat artzea.

Agur eta nai bezela agindu zure lagun
Lopez eta Mendizabal'tan Isaac'i

LOPEZ MENDIZABAL'DAR IXAKA

LEGE-GIZONA

TOLOSA. 'tik 1912, Garagañilla, 28'a.

Lakombe'tar G. Jaunari.

Paris'en.

Adizkide maitia:

Urkixo jaunak eskatu zidan zuri ta Schuchardt'i gure beriketariya^{, Gipuzkoara,} bialtzeko eta onelaxe bialdu dizutet bai zuri ta bai bestiari.

Zure idazkiyak (lettre) asko poztu nau. Berñtan ageñtzen da Euzkadi'tik urñti egonañen euzkera buruban eta biyotzian daukazula. Guk ere emen al degun guziya euzkeraren aldez egiten ari gera. Orain egun gutxi dala umekoxkoñentzat Aritmetika bat euzkeraz idatzi det eta esku arñtian dauzkat datoñen urñterako Egutegiya ta zakelerako Iztegi polit bat.

Besterik ez gauñko, auñki Euskalzaleen Biltzañan arñkituko gera-ta.

Bitarñtian eta beti badakizu agindu dezakezula nai bezela zure lagun ta aberñkide

Lopez Mendizabal'dar IXAKA'ri

TOLOSA. 1919, Lotazila, 27'a.

Lakonbe'tar Gorka'ri

paris'en.

Agur, adizkide maite ori!

Azketsi, barkatu zure idazkiari lenago ez erantzuna. Bilintx'en idaztitxoa bialdu nai nizun eta ez det iñun arkitu. Oso aitu omen da. Bein edo bein arkitzen ba-det bialduko dizut. Azkue'ren Met.Práctico ere ez det arkitu. Bilbao'ra joaten naizen batean biłatzeko alegiñak egingo ditut.

Gaur bialtzen dizkizut Iztegia, Esku-idaztitxoa eta argutegi batzuek. Ar itzazu nere izenez.

Asko poztuko giñake Eitzagi're ta ni o'era joanaz zurekin egun batzuek igarotzeko. Orain lan asko dara-bilgu eta ezin izango da. Bñan geroxeago ba' liteke eta orduan ba-dakizu poz aundi bat izango gendukela.

Emen beti Euzkadi eta euzkeraren aldez lanean ari gera. Biar ere emengo Batzokian (Cercle Nationaliste) antzerki-jai bat izango da, guzia euzkeraz.

Agur, adizkide maite. Ongi izan eta agindu nai guzia

Lopez Mendizabal'dar Izakari

Eitzagi're'ren aldetik gorantziak.

4
Casa Editorial

I. LOPEZ MENDIZABAL

SUCESOR DE EUSEBIO LOPEZ
FUNDADA EN 1750

IMPRESA
LITOGRAFIA
CARTONAJE

TEL. 1

TOLOSA (GUIPUZCOA)

1932, Dagoniā, 24'a.

Lacombe'tar Jorka jaunari.
Bayona'n.

Agur adizkide maite ori!

Ezagutzen al dezu "Grammaire pratique basque" par H. Gavel? Bayona'n salgai ba'lego agindu zazu bi ieki edo exemplaire neri bialtzea bere saneuri_agiria edo factura bialduaz, be-reala nik ordaintzeko.

Laserre'ren etxera azaltzen ba-zera esaezu salgai dituzten euskal-idaztien izenak neri bialtzeko. Lenago ere eskatu nizkien, Euzko- eta euskel idaztien idazti_izendegi edo Katalogo bat egiteko asmoa det-eta. Askok uste bañ idazti geiago degu eta onela jakin-araziezkero geiago saldukolitzake.

Atzo bialdu nizun El Pueblo Vasco bat eta gaur El Dia. Bietan Oyartzun'go argazki edo fotografiak ikusiko dituzu. Agur, adizkide, eta zure beñien zai gelditzen da

Lopez Mendizabal 'der Izake

5
Casa Editorial

I. LOPEZ MENDIZABAL

SUCESOR DE EUSEBIO LOPEZ
FUNDADA EN 1750

IMPRESA
LITOGRAFIA
CARTONAJE

TEL. 1

TOLOSA (GUIPUZCOA)
1934, Garagarila, 6'a.

Lacombe'tar Georges adizkide onari, agur!

Jakin det gure Lhande maitagarria gaxorik arkitzen dala. Agur bat nere izenez egiozu, eta esan zaiozu guzien bear gerala eta lenbailen sendatzeko. Ondoren esango didazu nola arkitzen dezun.

Euzko-Idaztien Izendegi edo Katalogo bat egiten ari naiz eta laitser argitalduko det, al dedan geiena zabalatzeko. Emen bialtzen dizut bere asiera.

Orain gutxi dala or nintzan, Paris'en, eta zu ikusteko asmoa izana'ren, astirik ez nuen arkitu.

Agur eta zure berien zai gelditzen da zure adizkide

I. Lopez Mendizabal
I. Lopez Mendizabal

6
Donibane-Lohitzun 1938, Ofiāa, I7āa

Lacombe'tar G. jaunari.
Paris'en

Agur, adizkide maite,

Onezkero zu ikustera joango zan Landaburu jauna, nere adizkidea. Berak esango zizun, noski, emen Barandiaran, Apraiz, bera ta nō bildu gifañean itz egindako gaiak. Baiona'ra zu etortzean gauz bera joko degu ea zerpedo-zer gure euskeraren alde egiten ote degun.

Orain beste gauz bat. Eusko-Ikaskuntzaren Araudie do Reglamenteoa nai genduke lenbaitlen arkitu. Iruxo, gure adizkideak, eskatu digu. Zuk bai al dezu? Ez baldin ba dezu etxean, or, Paris'en, Bibliothèque Nationale edo beste nunbaitean arkitu al zenezazuke? Nun bestela?

Ez naiz oroitzen noizkoa danik ere. Gērla onek buru guztia nastu digu. 1922'gañen urtekoa ote dan esan didate. Zuk baldin ba dezu bereala bialdu zaidazu, bigañen edo kopi bat ateratzeko. Bestela, or bertan atera-azi eta bialdi, zenbat ordaintzen dezun neri esanaz, bereala zuri bialtzeko.

Erantzun zaidazu, añen, alik laisterēn. Eskarik asko eta zuk ere nai guzia agindu zure adizkide zar

Loremaññol' de Ixaka

5, rue St. Jacques.

Erbestetutako gure aurentzat Antwerpen egin degun "Aurtxoan kristau ikastia" bialtzen dizut.

Donibane Lihitzun'dik 1938,Uztak 4.

Lacombe'tar Georges jaunari

Danapaleu'n

Agur, adiskide maite:

Art nuen garaiz zure idazkia eta geroztik jakin det zure osaba, nere adizkide zaña, il dala. Samin da lagun maiteak galtzea,bañan oraindik ere geiago lagun pek aspalditik ezagunak ziranean, eta gañera euskaltzaleak ziranean. Laguntzen dizut bada biotzez zure naigabeen. Nik ez det bein ere aztuko Egutegia asi nūn aspaldiko urte aetan zure osabak eman zidan sugaía eta kemena.

Eta gero nūn izango zera? Or,Baiona'n,Paris'en? Uda ontan nai nuke zurekin izketaldi bat edo beste egin. Esaidazu bada nun izango zeran.

Gure Pepe'k orain egun batzuek dala Barcelona íradots edo radioz euskeraz itzaldi eder bat egin zigun. Lengo lepotik du bere burua, eta etzaizka aztutzen emengo lagun maiteak. Uste detanez datoíen Biltza-ferako emen izango degu.

Agur, adiskide, eta agindu nai guzia

Lopermandratel'dar Ixaka

5, rue St.Jacques.

Buenos Aires 1946, abenduaren 12'an
Lacombe 'tar Georges Jaunari
Paris

Agur nere adizkide maitea:

Aspalditik negon zure berriak jakiteko gogotan. Zerbait Paris'ko Euzko Deya'ren bidez jakin nuen, bañan ez asko. Bañan zaleturik nago zure berriak zure atik jakiteko, eta emendik aurrera, maiz, oso maiz, alkarren berri idatzi bear degu. Zortzi urte ba da emen naizela, eta jakingo zenduen bezela, beste lagun batekin, Editorial Vasca EKIN aurrera daramagu, ez guk naiko genduken bezin ainbat lan egiñaz, diru gutxi degulako, bañan ala ere zer edo zer beti aurrera eramanez. Gure liburuen artean degu "Biblioteca de Cultura Vasca" edo Euzko-Jakintzaren Idazti-Sorta, eta bertan iru idazti edo liburu egin ditut: "La Lengua Vasca (Gramática, Conversación, Diccionario euskera-erddra, erdera-euskera); "Breve Historia del País Vasco" eta "El País Vasco" (Descripción general). Iru idazti oek oraindik ez baldin ba dituzu igusi orain nik eskeñi nai nizkitzuke. Zoaz bada gure Euzko-Ordezkaritzara, 11, Avenue Marceau, eta an ikusi zazu nere lagun Alberro'tar Agustin eta berak nere izenean emango dizkitzu. Gure liburu guzietan gelena saldu dana "La Lengua Vasca" ori izan da. Iru milla egin ziran eta berrogelien bat bakarrik gelditzen zaizkigu. Berriz ere egin bearke degu bada. On litzake zuk zure iritzia neri garbi ematea, zerbait zuzendu bearrik baldin ba da esateko. Oker txiki batzuek ere ba dira, eta urrengoan zuzendu bearke ditugu.

Eta zuk zer egiten/dezu? Zure bear aundi degu eta zure lanen berri jakin nai nuke. Zerbait ba ote zenduke gure Idazti-Sorta ortan argitaltzeko? Zorigaitzoko gudak guzia atzeratu digu, eta baita kalte ikaragarriak ekarri ere. ~~Jakingo~~dezu, noski, nere etxeko guzia galdu zala, nere liburuak, ostu edo erre zituztela, eta gu arrapatu izan ba ginduen illak izango giñala. Bañan Jainkoari eskerrak bizirik gaude, eta beñere baño lan gelago egiteko gogotan gure euskeraren alde. Emen Buenos Aires'en larunbatero euskera irakasten det Laurak Bat izena duen gure Batzoki aundian. Eta ikasleak beti asko ditut. Orain ikastaroa bukatu da udara eldu dalako, eta larunbatean aparti aundi bat izango degu. Pitinka pitinka beti aurrera.

Buenos Aires'en ere sortu degu "Instituto Americano de Estudios Vascos" izena duena. Bere buru, orain, edo Lendakari, Patagonia'ko Gotzai edo apezpiku Esandi jauna, eskalduna, degu, eta bertan biltzen dira gurekin Argentina'ko gizon jakintsu eta ezagun asko. Oraindiano gauz aundirik ez degu egin, bañan zerbait gelago laister egingo degu. Aldizkingi edo errebista bat ere egin nai genduke, eta uste det zuk ere or lagunduko diguzula. Donosti'n irtetzen da beste bat, bañan ez beñere lenagoko RIEV eder eta bikain ura.

Esandi jaunak orain argitaldu du idazti bat euskera eta etruskoa berdiñak ote diran azaldu naiaz. Bañan nere ustean oso oker dago, eta emen Imbelloni jaunak gogor eraso dio oker oek erakutsiaz.

Emen Laurak Bat izena duena Euzko-Batzoki aundiko Lendakari/edo Presidente naiz bi urte oetan, eta lan aundia egin degu gure oitura, abesti, izkuntza, dantza eta gañerakoan alde.

Orain esaldazu zure berri, eta baita zerbait ba zenduke neri bialtzekoa pozik artuko nizuke. Zer lan berri ote dira gure euskeratzaz jakin nai nuke, eta zer edo zer berri bere jatorri eta beste izkuntzaz alderatzeko. Ezeren alkartasun berririk asmatu ote da? Esaldazu bada al/dezun guzia, nai ba dezu pantseraz edo prantsesez, errezagao baldin ba dezu. Ba dakizu zure itzak entzuteko gogotan naizela.

Orain jakin degu Bouda'ren berri. Gizajoa bizi da, bañan goserik, eta joan dan astean jana bialdu diogu emengo "Eukalzaleak". Zuk ezeren bearrik bai al dezu? Besterike-z gaurkoz. Izan ongi, adizkide maite, ta zure berrien zai galditzenia

Lopez Mendizabal 'der Ixaka

Belgrano, 1141. Buenos Aires

I. Lopez Mendizabal

Urte berri on!

9

Bizidun zaitzuen egurreko oik
(Euzkadi'k) zure itxora Lasarte'ri.

ISAAC LÓPEZ MENDIZABAL

DOCTOR EN DERECHO Y EN FILOSOFÍA Y LETRAS

eta Eguteg. bat ere bai.

TOLOSA